

GATAZKAREKIKO SENTIKORRA DEN LANKIDETZARAKO GIDAK

# Herri indigenekin bakegintza kulturarteko testuinguruetan

Tania Rodríguez Triana



Universidad  
del País Vasco


Euskal Herriko  
Unibertsitatea



hegoa

INSTITUTO DE ESTUDIOS SOCIALES, CULTURALES Y ECONÓMICOS INTERNACIONALES  
Y DE POLÍTICAS PÚBLICAS Y DE DESARROLLO SOSTENIBLE





## Herri indigenekin bakegintza kulturarteko testuinguruetan

Tania Rodríguez Triana\*

---

\* **Tania Rodríguez Triana:** Politologoa, Diskurtsoen eta ideologiaren analisia masterra. Caliko (Kolonbia) Pontificia Universidad Javierana-ko Kultura arteko Ikasketa Institutuko Gizarte Mugimenduak eta Bakegintza Ikerketa ildoaren koordinatzailea. Bakegintza prozesuetan, kultura arteko gizarte elkarrizketan eta egoera sozio-politikoaren azterketan aditua.

Gida hau GLEAK finantzatutako proiektu honen markoan egin da: “Construcción de la Paz Crítica: marco conceptual y metodológico para una cooperación vasca sensible al conflicto”  
(Bake Kritikoaren Eraikuntza: gatazkarekiko sentikorra den euskal lankidetzaren baterako marko kontzeptual eta metodologikoa), PRO2016K3010.



## Herri indigenekin bakegintza kulturarteko testuinguruetan

Egilea: Tania Rodríguez Triana

[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU

Zubiria Etxea eraikina

Lehendakari Agirre Etorbidea, 81

48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91

Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar Enparantza, 2

20018 Donostia

Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU

Campuseko Liburutegia

Nieves Cano, 33

01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87

Faxa: 945 01 42 87

Berrikuspena: Itziar Mujika Chao

2019ko urtarrila

Diseinu eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios

Itzulpena: Iñigo Gallastegi Zorrilla

Inprimaketa: Gráficas Ingugom

L.G.: BI-718-2019

ISBN: 978-84-16257-38-6



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia

Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri. Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

# Laburpena

Gida hau lagungarri da kulturaartekotasun testuinguruetan, erkidego etnikoak izatea –indigenak eta afrikar jatorrikoak– ezaugarri dutenetan, nazioarteko lankidetzaren lanaren analisi teoriko eta metodologikoa lantzeko. Lehenik eta behin, kultura dibertsitateari eta bakegintzari buruzko ikuspegi liberalen eta ikuspegi kritikoen –bereziki teoria poskolonialen– arteko eztabaida aurkezten dugu. Jarraian, Kolonbiako kasua hartuta, kultura-aniztasunaren ikuspegiaren muga inguruko gogoeta proposatzen da, eta, azkenik, ondorio gisa, hainbat gomendio operatibo laburtzen eta aipatzen ditugu; gomendio horiek kultura-aniztasuneko testuinguruetan bakegintza-prozesuei buruz nazioarteko lankidetzari eragiten dion agentziaztea azpimarratzen dute, bakea lortzeko eta hari eusteko, eragin negatiboak gutxitu eta eragin positiboak gehitzeko printzipioa kontuan hartuta.

## Hitz gakoak

Multikulturalismoa, kulturartekotasuna, dekolonialitatea nazioarteko lankidetzaren, bakegintza.

# Aurkibidea

Sarrera .....	5
1. Ikuspegi postkolonialek bakegintzaren birformulazioari klabe kritikoan egindako ekarpenak .....	6
1.1. Kultura aniztasunaren ikuspegi liberala .....	6
1.2. Multikulturalismotik kulturartekotasunera .....	9
1.3. Lankidetzaren pentsatzeko ikuspegi dekoloniala .....	10
2. Eredu hibridoa eta kulturarteko elkarrizketa nazioarteko lankidetzarako bide bezala .....	12
3. Nazioarteko lankidetzaren eragileentzako gomendioak multikulturaltasun testuinguruko bakegintza prozesuen markoan: kulturartekotasunaren aldeko apustua .....	18
Bibliografia .....	21

## Sarrera

Testu honek, akademian garatutako azterketa-ikuspegi batetik, nazioarteko lankidetzaren eta batez ere euskal lankidetzaren gaitasun teoriko eta praktikoak hobetzen laguntzeko helburua du. Horren bitartez, lankidetzak bere politiketan eta jardueretan gatazkarekiko sentikorra den ikuspegi bat txertatzea lortu nahi du. Ikuspegi horrek, bada, nazioarteko lankidetzak gatazka testuinguruetan eta gatazkan bertan izan ditzakeen inpaktu negatibo zein positiboak aintzat hartzea eta horien erantzukizuna hartzea planteatzen du

Batez ere, gida honek komunitate etniko desberdinak (indigenak, afrikar jatorrikoak) dituzten kulturarteko testuinguruetan ematen diren nazioarteko lankidetzak jarduerari ekarpena egin nahi die. Horretarako, lehenbizi, kultura aniztasunaren eta bakegintzaren ikuspegi liberalen eta ikuspegi kritikoen arteko eztabaida landuko dugu. Teoria kritiko horien artean, batez ere, teoria postkolonialak izango ditugu hizpide. Horiek, bada, honako hau planteatzen dute: ikuspegi demokratiko batetik, kultura aniztasuna ezin da balio liberalen edo multikulturalismoaren nagusitasun moralean oinarritutako tolerantzia batera mugatu; aitzitik, kulturarteko elkarrizketa sakona behar da, bazterkeriaren eta arrazakeriaren oinarrian dauden gizarte egiturak eraldatzen laguntzen duena.

Bigarrenik, Kolonbiako kasuaren ikuspegi multikulturalak dituen mugen inguruko hausnarketa bat proposatzen dugu. Azkenik, ondorio moduan, kultura anitzeko testuinguruetakako bake prozesuen gainean nazioarteko lankidetzaren agentziamendua azpimarratzen duten zenbait gomendio operatibo laburbiltzen eta aipatzen ditugu. Agentziamendu hori, bakea lortzeko eta mantentzeko asmoz, inpaktu negatiboak minimizatzeke eta inpaktu positiboak maximizatzeke printzipioan oinarritzen da.

# 1. Ikuspegi postkolonialek bakegintzaren birformulazioari klabe kritikoan egindako ekarpenak

Gizarte zientzietatik bakegintzaren ikuspegi liberal klasikoa birplanteatu nahi izan duten ikuspegi dekolonialen ekarpena ulertzea funtsezkoa da. Izan ere, ikuspegi horiek gatazkarekiko sentikorra den ikuspegia txertatzea eta tokiko eragileak eta horiek nazioarteko lankidetzara eragileekin duten harreman aktiboa aintzat hartzea sustatu dute.

## 1.1. Kultura aniztasunaren ikuspegi liberala

Bigarren mundu gerraren ostean “multikulturaltasun” kontzeptuaren inguruko hausnarketa sortu zen. Horrek, eremu geopolitiko batean, esaterako, Estatu batean, hainbat kultura elkarrekin bizi zitezkeela aintzat hartzen zuen. Estatu nazionalaren eta demokrazia liberala egituratzen duten idealak finkatzeari dagokionez, aintzatespen horrek kultura aniztasunak dakarren erronkaren inguruan eztabaida piztu zuen ikuspegi politiko desberdinen barruan.

Hala, hasiera batean, multikulturaltasuna Estatu-nazioaren eraikuntzarako erronkatzat jotzen zuen eztabaida hori mendebaldeko parametro liberalen menpe egon zen. Izan ere, gaiaren inguruko ekarpen akademiko askotan, hain zuzen ere, 80ko hamarkada amaieratik 90ko hamarkada hasierara Ipar Amerikan egindako horien artean, parametro liberalak nagusi izan ziren. Ikuspegi horien argudio nagusiak, bada, ideal liberal honen araberrako Estatuari dagozkio: “demokrazia (...) sendoak, sistema ekonomiko sendo eta egonkorra dituztenak, non tradizio ez liberalek ez duten bertako kulturen zati handi bat hartzen eta kultura minoritarioek beren exigentziak artikulatzeko eta ezagutzera emateko antolakuntza handia duten” (Bonilla, 2006: 23). Halaber, argudio horiek liberalismoak berak ezarritako parametroetara mugatzen dira. Liberalismo hori, azken finean, gure garaiko korrante politiko hegemonikoa da eta honako balio hauetan oinarritzen da: autonomia, indibidualismoa, justizia, tolerantzia, etab. (Bonilla, 2006; Rodríguez, d.g.).

John Rawls eta Will Kymlicka bezalako teoriko liberalen saiakerak joera horien adibide dira. Egile horiek, bada, ez dituzte beren muga ideologikoak gainditzen, nahiz eta estatu liberal moderno batean kultura aniztasunaren ikuspegi “atseginago” bat erakutsi nahi duten. Rawlsten tolerantzia, erronka multikulturalari aurre egiteko helburuz, gizabanakoaren sinesmen doktrinal edo moral oro eremu pribatura murrizten duen ikuspegi batean oinarritzen da. Horren bitartez, egonkortasun politikoa bermatzeko oinarritzeko adostasunak sustatuko dituzten interakzio inpartzial eta lankidetzara moduak mantendu nahi ditu. Formula hori, berez, “jarrera kritiko” izendatuko dugun hori



sortzen lagunduko duen oinarritzko murrizketa da; jarrera horrek ekarriko baititu benetako eraldaketa politikoak, bereziki politikoa den kulturarteko elkarrizketaren eraginez sortuko direnak. Izan ere, eredu horrek, alde batetik, gizabanakoari bizitza bere nahi eta sinesmenen arabera bizitza ahalbidetzen badio ere; bestetik, bere identitate kulturalean oinarritutako interesak eremu publikora eramatea eragozten dio, non eztabaida sustatu, txertatu eta, zergatik ez, aldaketa estrukturalak sor ditzaketen. (Rodríguez, 2011.). Beraz, Rawlsek proposatutako tolerantzia premisa horrek ez dio liberalismoari kultura aniztasunera zabaltzeko eta bazterketa eta diskriminazioa sortu duten oinarritzko egiturak eraldatzeko aukera ematen; aitzitik, horiek erreproduzitzen ditu. Hala, kulturen askatasuna eremu pribatura mugatzen ditu eta horiek asimilazio politikora eta horren ondorioz gizarte apurka homogeneousizatzeko pizgarriak sortzera eramaten ditu.

Beste alde batetik, Rawlsi egiten dion kritikan, Will Kymlickak honako hau azpimarratzen du: liberalismoaren erroan dagoen balio liberal nagusia autonomia da, eta ez tolerantzia. Hala, Kymlickaren ustez, autonomiak gizarte demokratiko baten eremu politikoa arautzeaz gain, bertako kultura desberdinen arteko harremana ere arautu behar du. Egilearen argudioa, beraz, hiru zatitan bana daiteke. Lehenik, gizaki guztiek bizitza on bat izateko berezko interesa dute: “bizitza on batek izan behar dituen ezaugarriak dituen bizitza, non norberaren helburuei eta proiektuei jarraitzea merezi duen”. Bigarrenik, Kymlickaren arabera, bizitza on bat bizitzeko autonomia pertsonala ezinbestekoa da. Izan ere, pertsonak beren bizitza barrutik, hau da, beren sinesmen eta balioen arabera gidatzeko eta, beharrezkoa denean, sinesmen horiek zalantzan jartzeko aukera badute bakarrik lor dezakete zorientasuna. Eta azkenik, egileak autonomia eta kulturaren artean beharrezko lotura bat dagoela uste du; izan ere, bizitza on bat bizitzeko modu espezifikoak aukeratzen laguntzen duten sinesmenak eta esanahiak ematen ditu kulturak. Beraz, egilearen ustez, kultura aniztasuna dagoenean, gizabanakoak errespetatzeko konpromiso liberalak kultura desberdinak aintzat hartzea eta babestea eskatzen du. Hori horrela da babes horrek askatasun indibiduala bermatzen duen neurrian, eta kulturak, beharrezkoa denean, sinesmen eta balio horiek zalantzan jartzeko eta berrikusteko aukera ematen duen heinean.

Hortaz, Kymlickak dioenez, “beren kideei aukera esanguratsu eta baliotsuak eskaintzeko eta kide horien autonomia indibidualerako ahalmena lantzeko duten gaitasuna”ren arabera ebaluatu eta toleratu behar dira kulturak.

Halaber, pentsatzaile liberal horrek balio handia ematen dio giza garapenari baina, hala ere, bere teoriak zailtasun asko erakusten ditu multikulturalismoa errespetu gisa ulertzeaz harago bagoaz eta kultura liberal eta ez liberalen arteko lankidetzan pentsatzen badugu. Adibidez, egileak bizitza onaren inguruan proposatzen digun definizioa berez gizakiaren kontzeptzio liberalarekin lotuta dago eta alde batera uzten ditu kontzeptu horrek izan ditzakeen definizio anitzak. Beraz, bizitza ona berrikus daitezkeen helburuei edo sinesmenei jarraitzeri lotuta dagoela adierazten duenean, ez du kontuan hartzen beste kultura batzuk daudela, non tradizioa nagusi den edo bizitza ona egunerokoa, natura eta halabeharrez sortzen diren egoerak disfrutatzean datzan, mantenuari buruzko eztabaida minimoarekin.

“Egia”, “arrazoizkoa” edo “bizitza ona” definitzean, ikuspegi horrek alde batera uzten ditu beste aukera guztiak; horiek faltsu, irrazional, txar edo gizagabe bilakatzen dira. Testuinguru horretan, beraz, kulturak giza garapenean duen garrantziari buruzko argudioak balioa galtzen du praktikan. Izan ere, praktikan, kulturak iritzien helburu izan daitezke; hau da, horiek ebaluatu eta toleratuak izan daitezke edo ez, kultura jakin batenak diren -aukera bat askoren artean- balio hegemonikoekin duten antzaren arabera.

Halaber, nor bere bizitza barrutik bizitzearen ideia mundu-ikuskerara liberalari dagokio eta ez ditu gizakiok kulturarekin izan ditzakegun harreman anitzak kontuan hartzen. Horrek indibidualizazioaren eta agentzia moralaren teoria bat auresuposatzen du eta barrukoaren eta kanpokoaren, gizabanakoaren eta kulturaren arteko bereizketa argia dakar berekin. Dena den, ez dago argi gizarte demokratiko liberaletan ere bakoitzak bere sinesmenen arabera eta modu zintzo eta burutsuan bizi denik; edo bere kulturarekin harreman independente eta kontzientea izateko gai den izaki transzendentalik dagoenik.

Aipatu dugun bezala, egilearentzat kulturaren balioa kultura horrek autonomia indibidualari egiten dion ekarpenaren arabera zehazten da. Beraz, Kymlickak gizakien ongizaterako eta bizitza onerako funtsezkoak diren beste balio batzuen eraikuntzan kulturak duen rola gutxiesten du. Azterketa hau argitzeko, bada, kulturek identitatearen eraikuntzan egiten duten ekarpena ekar dezakegu gogora; kide izatearen, elkar laguntzaren, gizarte elkartasunaren eta konfiantzaren zentzuaren iturri bezala. Balore horiek ez daude berez autonomia indibidualaren sustapenari lotuta, baina ezinbestekoak dira giza ongizaterako. Izan ere, kultura autonomia indibiduala sustatzeaz harago baliotsua dela eta autonomia funtsezko bertutetzat hartzen ez duen kultura batean ere bizitza on bat izateko aukera dagoela onartzen badugu honako ondorio honetara helduko gara: beren kideen ongizatea sustatzen dute kulturak -Kymlickaren kontzepzioaren arabera ez bada ere- beste edozein kultura bezala babestu behar ditugu.

Kymlickaren teoria liberalak liberal klasikoen teoriak baino eremu handiagoa du aniztasunerako baina eremu hori mugatua da oraindik ere. Izan ere, gizakiaren kontzepzio liberalak eta autonomia indibidualaren balio liberalek kultura aniztasuna errespetatzea sustatzen, arautzen eta mugatzen du liberalismoak. Liberalismoaren doktrina bereganatzailean sartuta -Rawlsek berak erabilitako hitzetan-, Kymlicka ez da kulturak beren horretan ulertzeko eta benetako desberdintasuna errespetatzeko gai.

Atal honekin amaitzeko, egile horiek kultura aniztasunaren inguruan egiten duten azterketa horrek, beraz, liberalen eta ez liberalen artean banatzen dituzte kultura guztiak. Multikulturalismoaren erronka, horren arabera, eredu politiko liberala desberdintasun kulturekin tolerante bihurtzea izango litzateke. Baina tolerantzia horrek ez du balio liberalen unibertsaltasuna, arrazionaltasuna eta nagusitasuna zalantzan jartzen; izan ere, alde batetik, besteen desberdintasunak onartzen ditu eta, bestetik, ez erasotzeko, elkar errespetatzeko eta elkarri ulertzeko itun bat da. Aztertu ditugun teoriko liberalentzat, beraz, kultura aniztasunaren erronkak ez du eskatzen gizartea zuzentzen eta antolatzen eta gatazkak ebazten dituzten instituzioak, balioak eta jokoaren arauak zentzu demokratiko batean berrikustea eta berregitea. Bestea aintzat hartzeak ez du ekarriko horrek harreman sozial eta politikoen oinarrien definizioan parte hartzea. Testuinguru horretan, parte

hartzea posible izateko, besteak nagusi den kulturaren ildoetara eta balioetara moldatu behar du.

## 1.2. Multikulturalismotik kulturartekotasunera

Teoria liberalek adierazten duten multikulturalismoari egin diezazkion kritikei buruz hausnartu eta gero, ezinbestekoa da kulturartekotasunaren proposamena kultura aniztasunak dakarren erronkei aurre egiteko alternatiba bezala aztertzea, baita kultura desberdinetako eragileak dituzten testuinguruetan bakegintzaren erronkei erantzuteko ere. Jakina, gaur egungo adibideek gero eta gehiago erakusten dutenez, aniztasun nozioaren aintzatespen multikulturalista ez da nahikoa bere gizartearen baitan sortzen diren gatazken eraldaketa edo kudeaketa baketsua egiteko baldintzak lortzeko. Horretarako, izan ere, benetan pluralista den eredu demokratiko bat sortzeak honako hau eskatzen du gutxienez: “erabakitzeke eremuetan, zuzendaritza eremuetan eta batez ere gizartea antolatzen duten arauetan aniztasuna aktiboki txertatzea” (Rodríguez, 2011: 369). Orduantxe hartzen du benetako balioa kulturartekotasunaren kontzeptuak; ez multikulturalismoak azpimarratzen duen aintzatespen beharra ukatzen duelako, baizik eta horrez harago urrats gehigarri bat egiten duelako (Gros, 2000).

Izan ere, kulturartekotasunak bestearen aintzatespena eta tolerantzia hartzen du berez, baina harago ere doa; inklusio horren nondik norakoak zalantzan jartzen baititu eta zalantzan jartze hori praktika demokratikoen berezko parte bihurtzen baitu. Kulturartekotasuna eremu bat da “non kultura askok paraleloan ibiltzeari uzten dioten eta elkar gurutzatzen duten, elkarri eraginez” (Chapela, 1999). Hala, kulturartekotasunak kulturen arteko interakzioa biltzen du gizartearen eta politikaren eremu erabakigarrietan. Labur esateko, ez da demokrazia liberalak edo jokoaren arauak gainontzeko kulturak aintzatetsi eta errespetatu behar dituztela, baizik eta arau eta praktika demokratikoen zentzu bera eztabaidatzeko eta zalantzan jartzeko eremu bat sortu behar dela. Kulturartekotasunak, desberdintasuna aintzat hartzeaz gain, kultura desberdinek partekatzen duten hori nabarmetzen du; lurralde berean bizitzea, bizitzarako eremu berak izatea -eremu horrek talde kultural bakoitzak garatzen dituen jardueren eragin zuzena duelarik-. Kulturak lotzen dituzten lokarriak aintzat hartzeak honako hau dakar: “Estatuak eta gizarte zibilak interakzio positiboko eremuak eta prozesuak sistematikoki eta mailaka sustatzea, eremu horietatik honako hauek sortzen direlarik: konfiantzazko, elkar laguntzako komunikazio eraginkorreko harremanak eta [batez ere] elkarrizketa eta eztabaidako, ikasteko eta trukeko harremanak; gatazkaren eraldaketa baketsua [arau horiek, eztabaidaren markoa, arauak eta moduak ezin dira kultur jakin batetik inposatu; izan ere, trukearen emaitza dira, kulturarteko eraikuntza]; lankidetzak eta bizikidetzak” (Valdillo Pinto, 2006).

Zentzu horretan, kulturarteko demokrazia bat sortu nahi badugu, borroka kulturalaren beste dimentsio bat nabarmendu behar dugu, askatasun negatiboaz harago doana. Izan ere, askatasun negatibo hori, norberaren kulturaren, printzipioen eta sinesmenen arabera, jarduera pribatuak askatasunez garatzeko oztupoak ez egotera mugatzen da, baita bestearen duintasuna aintzat hartzera eta errespetatzera ere [horrek, hala ez balitz, duintasun hori lehen azertu ditugun premisa liberalen barruan hertsatuko luke].

Hori, beraz, borroka kulturalaren dimentsio bat da, kulturarteko elkarrizketa zabal eta horizontalerako eremu sozial eta politikoak eratu nahi dituen. Hala, elkarrizketa horretan, desberdintasunak eta antagonismoak aintzat hartuz, gizartearen oinarritzko egiturak eta erabakitzeko prozedurak eztabaidatzen dira, eta aldaketak, jarraipenak, helburuak eta horietan parte hartzeko bideak zehazten dira (Rodríguez, 2011: 368).

Hein horretan, kulturartekotasunak, klabe kritikoan, ez du bestearen inklusioa bakarrik eskatzen; aitzitik, inklusio horren nondik norakoak, kulturarteko elkarrizketaren ezaugarriak eta kalitatea modu aktiboan eztabaidatzea eskatzen du. Hala, gizartea egituratzen duten alderdiek gizarte gatazkak ulertzeko eta lantzeko modua subsumitzen dute eta alderdi horiek berrebaluatzeko eta birformulatzeko prozesu etengabe aniztasunak balio ikaragarria izan dezake. Hala ere, balio hori onartzeaz gain, funtsezkoa da gizarte talde desberdinen arteko harremanak nola ematen diren -edo eman beharko liratekeen- hausnartzea.

Hala, hausnarketa horrek funtsezko premisa honi buruzkoa izan behar du: mundu-ikuskeren arteko desberdintasunak eta kontraesanak politikaren arlokoak dira eta, beraz, horien inguruko hausnarketak ez dira gizabanakoen eremu pribatura mugatu behar; aitzitik, eremu publikoan eman behar dira. Inperatibo horrek, aldi berean, kanal efektiboak egotea eskatzen du, zeinen bitartez, alde batetik, kulturarteko elkarrizketa sor daitekeen eta, bestetik, desberdintasun horiek gizartearen oinarritzko egituretan zehatz daitezkeen -behin horiek eremu publikoak landuta- (Rodríguez, 2011: 373).

### 1.3. Lankidetzaren pentsatzeko ikuspegi dekoloniala

Elkarrizketan honako galdera hau mahaigaineratzea garrantzitsua da: Zergatik ez da nahikoa kultura arteko elkarrizketa bat egiteko aukera eta funtsezko bihurtzen da elkarrizketa horren baldintzei buruz pentsatzea ere? Kulturartekotasun ariketa hori egiteko eremuak izateak, nolabait, mundu ikuskeren arteko desberdintasunei eta kontraesanei buruzko eztabaida eremu publikoan emateko aukera erakusten du, baina ez du berez hegemonikoak ez diren ikuspegiak aintzat hartzea bermatzen. Halaber, eremu horiek izateak ez du ekarriko ikuspegi horiek oinarritzko gizarte egiturak berrebaluatzeko eta birformulatzeko prozesuan egin daitekeen aukeratzat hartzea.

Egoera zehatz horren oinarritzko argudioaren arabera, eremu publikoa da, hain zuzen, botere borroken eremua. Zentzu horretan, beraz, honako hau da hurrengo galdera: Zer paper du kulturartekotasunak botere borroka horietan? Erantzunak lotura izan dezake kolonialtasun ikuspegi batekin; hain zuzen, bakegintza ezinbestekoa den lurralde askotan nagusi diren gizarte ordenen oinarrian dagoena. Ordena horiek, bada, mundu-ikuskerara berezi bat ezartzeari eta, hortaz, beste ikuspegi eta kontzeptzio batzuk alde batera uzteari erantzuten diote. Beraz, eraldaketa estrukturaletan pentsatu ahal izateko “herriak [indigenak eta afrikar jatorrikoak eta, ikusiko dugun bezala, baserritarrak ere] eta herri horien praktikak eta ezagutzak baztertu eta menpeko bihurtu dituen desberdintasun koloniala” onartu behar dugu (Walsh, 2002: 4). Nazioarteko lankidetzaren jaso ohi duten eskualdeetako herri askoren kasuan, ikuspegi hegemoniko hori kolonizatzaileak izandako

horien ikuspegi bera da. Hortaz, independentzia prozesuak eta, horien ondoren, Estatu-nazio eredia sendotzeko saiakerak gorabehera, aurrez suposa dezakegu ikuspegi horiek ez direla, hain zuzen ere, gizarte ordenaren eraikuntza demokratiko idealak.

Aurrekoa kontuan hartuz, honako hau antzeman dezakegu: boterea lortzeko borroketan -eta bakegintzan ere, borroka horiek gatazka sortzen duten kasu horietan-kulturartekotasun kritikoaren egokitasunari buruzko eztabaidak izan dezakeen papera, bada, kulturartekotasuna izan ditzaketen eremuak dekolonizatu beharrekin lotzen da. Prozesuak gizarte taldeen artean berdintasunean oinarritutako interakzioak sustatzea du helburu; ez bakarrik eztabaida politikoa gauzatzen den eremu horietan sartzeko (parte hartzeko kanalak), baizik eta mundu-ikuskerara “desberdinak” ere aintzat hartuak izateko. Hala, gizarte ordena ezartzean, mundu-ikuskerara horiek komuna den horren zentzua eraikitze eta deseraikitze leku baliotsua izango dute. Kulturarteko elkarrizketa dekolonizatzeko Hego Amerikako, Afrikako eta beste gizarte batzuetako prozesu kolonialisten ezaugarri diren logika horiek elkarrizketa horretan sortu zuen desoreka onartu behar dugu. Era berean, kulturalki desberdinak diren gizarte taldeentzat desoreka horiek desabantaila argiak ekar ditzaketela onartu beharra dago. Izan ere, herri askotan desabantaila horiek ez dira ez zuzendu, ez gaingitu ere.

## 2. Eredu hibridoa eta kulturarteko elkarrizketa nazioarteko lankidetzarako bide bezala

Kolonbia, dudarik gabe, azaldutako kasu horien adibide esanguratsua da. Bertan hainbat etnia eta kulturako biztanleak bizi dira; eta are garrantzitsuago, konstituzioaren arabera, Estatu pluri-etniko eta multikulturala da. Hortaz, politika eta gizarte ordenan aniztasuna txertatzen lagunduko duen egitura legegilea eta instituzionala sortzea sustatzen ari da.

Nazioarteko lankidetzaren proiektuak, bada, komunitateek eta haien artean eta lurraldeekin duten harremanek osatzen duten egituraren garatzen dira. Beraz, eragile horiek eragile aktiboak eta bake eta garapen eragileak direla ez onartzeak proiektuen porrota ekar dezake, matrize kolonialista erreproduzitzen du eta sortutako gizarte ehunari kalte egin diezaiolke. Izan ere, gizarte ehun horri esker, Kolonbiako komunitateek, Estatuaren errespetua lortzean gain, gerrari eutsi ahal izan diote.

Zentzu horretan, beraz, kultura arteko elkarrizketa edo eredu hibridoa da lankidetzaren proiektuen arrakasta bermatzeko gakoa. Halaber, komunitateak beren eskubideen defentsan eta beste eragile batzuekiko elkarrizketa politikoan indartzen dituzten esku hartzeen arrakasta bermatzeko gakoa da hori. Izan ere, eredu horrek honako hau garantizatzen du: elkarri eragiten dioten guztiek ematen dutela eta guztiek irabazten dutela. Hortik abiatuta, kulturartekotasuna egin beharreko horren eta hori egiteko moduaren inguruan adostasuna lortzeko *aukera* da.

*Kulturarteko elkarrizketa eta mitoaz jabetzeko eta hori zalantzan jartzeko eta eraldatzeko eginkizun filosofikoa, diskurtso kultural desberdinen baliokidetasunak aurkitzekoa, bada, prozesu bat da non gizaki eta kultura guztiek elkarrekin lan egiten duten gizateriaren eta unibertsoaren etorkizunagatik. Izan ere, hori gure eskuetan dago, neurri handi batean. Horixe da gizakion duintasuna eta ardura [nazioarteko lankidetzaren inplizitua dena] (Panikkar, 2006).*

Bestelako *mundu-ikuskera* batzuekiko harremanak, maiz, izatea ulertzeko *modu* desberdinak daudela erakusten digu. Ehunka giza taldek *munduan* izateko berezko praktikak dituzten kulturak eta gizarteak sortu dituzte. Bizimodu horiek ezagutzea oso askatzailea izaten da gizaki guztiontzat; “materiaren, denboraren eta espazioaren (...) eta, hortaz, gizakiaren eta bizitzaren zentzuaren bestelako kontzepzioak dituzten kulturak ezagutzeak mindu dezake eta aldi berean askatu” (Panikkar, 2006). Bestearekiko harremana *mundu* sinboliko berriak sortzea sustatu behar du, guztiok hartzen gaituzten munduak, alegia.

Zentzu horretan,

*(...) kulturarteko elkarrizketaren proposamena “bestea”rekiko irekitasuna bezala lere] sortzen da, “gu”aren barne kritika zorrotzak sortzen duen adostasun ezaren ondorioz. (...) R. Fornet-Betancourtek (1998) nabarmentzen duenez, gure zibilizazioa berezko “zibilizazio osteko basakeria” garatzen ari da, (...) [gure] panorama atsekabegarriaren aurrean, egileak mendebaldeko zibilizazioari erantzun alternatibo bat eman beharra proposatzen du. Horretarako, izan daitezkeen beste mundu-ikuskerak batzuk ezagutzeko aukera ematen duen kultura aniztasunaren baliabidera jotzen du. (Bartolomé, 2006)*

Kulturen arteko topaketa ez da derrigorrez kulturartekoa. Halaber, fenomeno kultural bat ez da kulturen arteko topaketaren emaitza; gerta daiteke bata besteari erasotzea edo bata bestea ezabatzea. Hortaz, kulturen arteko topaketa fenomeno kulturala izango da, nolabait, aintzatespena eta proiektu komuna badago.

Beraz, kulturartekotasunaren bizipenak irekitasunean oinarritu behar du, gatazkaren lanketa baketsuaren alde egiten duen prozesu kontziente bezala. Hala, adostasuna nazioarteko lankidetzaren markoan ematen den topaketarako *aukera* bezala erabiltzen du. Hasierako irekiera horrek, bada, norberaren ikuspegia gabeziak dituen eraketa sinboliko mugatu gisa *onartzea* du ezaugarri. Kulturartekotasuna, beraz, “errealitatea pertsona eta kultura bakoitzean adierazten dela ulertzean oinarritzen da, beraz, horietako batek ere ez du hori bere osotasunean ezagutzeko pribilegioa” (Canadell, 2001). Hala, kulturarteko elkarrizketak gizakiaren gabezia onartzen du eta zati bat bakarrik ezagutzen dugulako ziurtasuna du. Izan ere, ziurtasun hori gabe gure burua buruaskitzat eta egiaren edo benetako doktrinaren jabetzat jotzeko arriskua izango genuke<sup>1</sup>.

Kulturartekotasunak mundu-ikuskerak bakoitzaren balio paregabea aintzat hartzea eskatzen du. Era beran, planetaren osasunerako eta ongizaterako bioaniztasuna beharrezkoa den bezalaxe, giza kontzientzia hazteak benetako pluralismoa eskatzen du. Kulturartekotasunak, beraz, kontzientzia aldaketa eskatzen du, hori ezean beste kultura batzuk ulertzeko eta horiekin lan egiteko ahaleginek ez baitute fruiturik emango (Canadell, 2001).

Ikus daitezkeenez, kulturartekotasun nozioa herrien arteko harremanaz eta intersekzioaz harago doa eta *jarrera* bezala planteatzen da. Jarrera hori ez da etikoa edo epistemologikoa bakarrik, baizik eta politikoa ere, desberdintasuna kudeatzeko aukeratzen duen moduagatik. Hala, giza talde desberdinen arteko topaketak desberdintasun argi baten arabera ematen dira eta horrek botere agertoki bateko leku desberdinetan kokatzen ditu hizketakide biak. Latinoamerikaren kasuak arau hori ekartzen digu burura. Bestetasunaren

---

1 “Hainbestearino sinesten ditugu gure mitoak non bestea behar baitugun horretaz jabetzen laguntzeko. Horixe da beraz elkarrizketaren garrantzia (...) bestea gure mitoak erakusten digun alter bat da eta ez alius bat; hurkoa da eta ez arotza. Besteari ireki gabe, mito kolektiboak oso garrantzitsuak izan daitezke, arrazakeria edo nazionalismo moduak sortuz ere (...)”. (Panikkar, 2006)



bizipenek, amerikar kontinentean, jaraunspen historiko problematiko baten eragina dute eta horrek gaur egungo botere harremanen konfigurazioan eta tartean sartutako baldintza sozio-ekonomikoetan eragiten du<sup>2</sup>. Desberdintasun kulturek, beren kode eta marko sinboliko desberdinekin, bertako herrien, afrikar jatorrikoen eta “gehiengo” mestizoen arteko elkarrekikotasun zaileko panorama konplexuagotzen dute (baina ez dute hori sortzen).

Gertakari korapilatsu ugari azken bost mendeetako jarduera markatu du. Korapilatsutasun horiek afrikar jatorriko eta jatorrizko taldeen zapalkuntzaren eta genozidioaren artean mugitu dira, mendebaldeko zuri edo mestizoen eskutik. Orainsu, txarto deitutako talde “minoritarioek” beren berezitasunen eta eskubideen aintzatespena lortu dute (gutxienez diskurtsoan). Hori, bada, Latinoamerikako herrialdeen konstituzioetan argi ikusten da; izan ere, herrialde horiek nazio anitz eta multikultural bezala definitzen dute bere burua. Hain zuzen ere, kolonizazioz eta zapalkuntzaz betetako testuinguru horretan, multikulturalismoa aurrerapauso handia izan zen. Hala ere, *etengabe aipatutako* kontzeptu horren huts kontzeptualak berehala geratu ziren agerian. Izan ere, multikulturalismoak topaketari eta topaketak izan behar dituen baldintzei buruzko galdera alde batera uzten du eta, hala, gizarte eragile desberdinen arteko harremanek legeen eta orekaren berme faltsua dutelakoan dago<sup>3</sup>. Hortik abiatuz, amerikar kontinenteko herri indigenak eta afrikar jatorrikoak kultura-*arteko* eremu horri buruz hausnartzen hasi dira, *monitorizatutako* hurbilketa-eremu bezala. Horrek, tradizioz kolonialista den hizketakide baten aurrean berezkoa den hori babestea eta desberdintasuna eta menperakuntza sustatzen duten praktikak ezabatzea proposatzen du, desberdintasun eta menperakuntza horiek berdintasunezko-kulturarteko eremu dialogiko bat sortzeko ezinbestekoak baitira

Aipatu dugun bezala, [Kulturartekotasunak, posizio “kritiko” batetik,] behetik gorako prozesuak enfokatzeko, (...) eraldaketa sozialak bilatzen dituztenak eta horiek lortzeko hainbat norabidetan ibiltzea eskatzen dutenak. Hau da, bide anitzeko kulturartekotze prozesuak. Gainera, praktika zehatzean, desberdintasunak ez dira etnizitate sortzen, baizik eta adierazpeneko subjektibitate eta locus batetik; taldeen menpekotasun sozial, politiko eta kultureko eta ezagutza menpekotasuneko esperientziak definitzen eta eraikitzen duena. Posizio horretatik sortutako kulturartekotasunaren esanahiak desmenpekotze eta dekolonizatze prozesuak dakartza. Praktikan, prozesu horiek berezkoa den hori indartzera bideratzen dira, indarkeria sinboliko eta estrukturalari aurre egiteko estrategia bezala; borroka eremua zabaltzeko, gainontzeko sektoreekin berdintasunezko harremanak sustatzeko eta aldaketa estruktural eta sistemikoak bultzatzeko helburuz. (Walsh, 2002).

---

2 Talde indigenen eta afrikar jatorrikoen menperatze eta baztertzeko denboraldi luzeak hierarkia sozial eta ekonomikoaren maila baxuenetan kokatu zituen horiek. Ondorioz, ez da harritzekoa talde horiek izatea, hain zuzen, Latinoamerikako biztanleen artean bizi baldintza latzenak dituztenak...

3 “(...) multikulturalismoak edo aintzatespenaren politikak kultura desberdinen artean berdintasunezko harreman simetrikoak daudela suposatzen su, aniztasunaren oinarrian duten harremanen gatazkei ez ikusia eginez. Banatuta dauden kolektibo kultural desberdinen arteko errespetua da benetan sustatzen ari dena” (Diez, 2004).



Gizarte mugimenduetatik pentsatutako eta kudeatutako kulturartekotasuna *kanporanzko* mugimendua da<sup>4</sup> eta, hala, desberdina den horrekin harremanetan jarri aurretik, berezko nukleo kulturala eta soziala indartzea eskatzen du. Joanne Rappaportek Cauca indigenen mugimenduekin izan duen esperientzian oinarrituz egindako disertazio kontzeptual eta anekdotikoak joera horrekin bat datoz. Rappaporten arabera, *antolatutako* indigenentzat kulturartekotasunak honako hau eskatzen du: “berezkoa den hori ezagutuz abiatzea beste ezagutza batzuk barneratzen joateko”. Horretan oinarrituz, kulturartekotasuna “gizakiez gain, eremu espiritual hartzten duen zerbait da eta, hala, ‘herri indigenak bere lurraldea, mundu-ikuskerak eta gizarte harremanak berresten ditu, elkarbizitza baketsua izateko aukera emanez” (Rappaport, 2008).

Gizarte mugimenduek proposatutako kulturartekotasuna lortzeko bigarren baldintza berdintasunaren eta justiziaren aldeko borrokari dagokio. “Kulturarteko utopiak, intelektual publikoak, kulturarekin egindako esperimentuak eta pluralismo etnikoa Kolonbian” liburuan, Rappaportek CRICren<sup>5</sup> argitalpenetan aurkitzen diren kulturartekotasunaren ildoak biltzen ditu. Horien arabera, kulturartekotasuna honako hau da: “beste baloratu eta errespetatu eta desberdintasunetik berdintasun baldintzak bilatuz sortzen eta bizi diren harremanak” (Rappaport, 2008). Kulturartekotasunaren azken baldintza horrek, berdintasuneko gizarte nazionala lortzeko borrokara bideratuta, nagusi den sistema politiko, sozial eta ekonomikoa errotik *astintzeko* asmoa ekarriko du berekin.

[Kulturartekotasun] nozio hori eraldaketa estrukturalako ikuspegi batean oinarritzen da eta gizartearen antolakuntza berri baten aldekoa da. Hala, itun sozial berri baten aukera erdigunean kokatzen du, hau da, konstituzionalismo aukera berriak, demokrazia eta Estatu berregiteko aukera. (...) Lehenetsuneko da makrokulturak bere irizpen makrokulturala eta bere ideia homogeneousatzaile osoa gainditzea; boterea eta aberastasuna birbanatzeko asmoa duen kultura arteko eztabaida bat proposatzen da. Ez da kulturen arteko harremana bakarrik, funtsean zalantzan jartzen dena hierarkia eta asimetria da, (...) eraldatzeko elkarrizketa bat da, elkarbizitza bestelako harreman batean oinarritzeko helburua duena. (...) Beraz, gizarte mugimenduek kulturartekotasunaren kontzeptua erabiltzen dutenean, zibilizazio aukera berrietan sartzeko aukera bati buruz ari dira (Arboleda, 2011).

Bestalde, Catherine Walshek *bebetik* sortutako kulturarteko apustu horren *zentsua* berresten du. Bere esanetan, “jokoan dago ustezko demokraziaren oinarri estrukturalak erabat zalantzan jartzea, ikuspegi monokultural eta baztertzailerekin betirako haustea eta, indigena den horretatik, gizartearen beste sektore batzuk interpelatu eta artikulatu duten ikuspegiak ereitea” (Walsh, 2002).

4 “Kulturartekotasunaren ikuspegi horren abiapuntua kultura barneko praxia da; hain zuzen, Juan Garcia afroekudortar intelektualak “etxe barrua” izendatzen duen hori; mugimendu sozialek, (...) lehenbizi, beren barne desadostasunak konpondu nahi dituzte, barne harmonia ezarri nahi dute kulturarteko proiektuan aurrera egin ahal izateko” (Arboleda, 2011).

5 Consejo Regional Indígena del Cauca (Caucaco Eskualde Kontseilu Indigena).

Kulturartekotasuna, bada, aspalditik zapal dutako sektoreen eta horien zapaltzaileen arteko topaketa eta elkarrizketa bezala aurkeztu ohi da. Catherine Walshentzat, ikuspegi horrek pentsamendu tradizionala erreproduzitzen du, dualismo berriak sortzeko arriskuarekin; “kulturartekotasuna (...) besteen eta ez norberaren arazotzat eta eginkizuntzat hartzeak (...) etniaren arabera banatutako bide eta prozesuak hartzea dakar, modu batean edo bestean, binarismoa eta polarizazioa erreproduzitzen dutenak: zuria-mestizoa/ indigena edo beltza” (Walsh, 2002). Kulturartekotasuna kolonizatzaileak eta kolonizatuak bakarrik hartu beharreko konpromiso bezala aurkeztea, askotan, jatorrizko eta afrikar jatorriko herrien artean sortu diren arbuioak, arrazakeriak eta “etnia arteko” gatazkak ezkutatzeko estrategia diskurtsibo bilakatzen da (Walsh, 2002). Egia esan, benetako kulturartekotasun ariketa batek gizarte eragile guztiak hartu behar ditu, horien jatorria gorabehera. Giza talde guztien beharra da gatazkaren konponbide baketsua sustatzea eta eztabaidarako berdintasunezko agertokiak sortzen laguntzea. Hala, kulturartekotasunaren izaerak mugikortasunaren eta aniztasunaren erritmoa proposatzen du polarizatutako harremanen “estatikotasunaren” ordez.

*Ekintza* dialogikoan sartzen bagara, suposatzekoa da kulturartekotasunak Bestearekiko esperientzia *nola garatu behar den* hausnartzeko erronka duela. Hala, desberdintasunarekiko elkarrizketak hauekin bat etortzea eskatzen du: kulturartekotasunaren sostengu etiko, politiko eta epistemologikoa; gaur egungo harremanak eta hierarkiak eratu dituzten alderdi historikoak; oraingo “bataila-eremu” kultural, politiko, sozio-ekonomiko eta ideologikoa, non komunitate indigenek eta afrikar jatorrikoek parte-hartze aktiboa duten.

Fornet-Betancourten arabera, kulturarteko eztabaidak ezin du kultura jakin baten menpe egon (...) Fornet-Betancourtek honako hau azpimarratzen du: ez marxismoa, ez askapenaren filosofia, ez komunikazio ekintzaren teoria, ez dira mendebaldeko filosofiaren eremua gainditzen duten aldaketak eta, hortaz, “filosofiaren eraldaketa monokulturalak” dira (...) interpretazio paradigma gisa balio duen eredu teoriko eta kontzeptual bakar batean oinarritzen den pentsamolde bakarrari uko egitea eta parte hartzen duten logos desberdinen arteko berdintasunezko harremanean oinarritzen den elkarrizketara irekitzea proposatzen du, horien legitimitatea onartuz (1994) (Bartolome, 2006).

Nazioarteko lankidetzaren prozesuak kulturarteko elkarrizketatzat hartzeak, bada, esku hartzeko proiektuak eta prozesuak hibridazio kontzeptuaren arabera pentsatzera garamatza. “The concept of hybridity is taken as the interaction of actors, ideas and practices to produce fusions, harmonies and disharmonies. All societies involve, and are the result of, social negotiation” (Richmond & Mitchell, 2012, 209). Definizio horretan oinarrituz, lankidetzaren mailakako prozesu konplexua da, non hainbat eragilek lurralde jakin batean ekimen bat sortzeko gaiak adosten dituzten. Zentzu horretan, interakzio horiek lurralde bakoitzaren testuinguruaren eta baldintzen arabera dela aipatu behar dugu. Ondorioz, lankidetzaren eragileek tokiko eremuan ematen diren gizarte prozesuen konplexutasuna ulertu behar dute eta ez dituzte bere ekintzak nazioarteko exijentzien arabera bakarrik zehaztu behar. Eredu hibridoak, bada, lurraldera moldatu nahi du nazioarteko lankidetzak dakarren ikuspegia, hori jatorriko herrialdeko edo eskualdeko estandarren eta kulturaren arabera dela baita. Hala, makro ikuspegi hori tokiko komunitateen beharretan eta

kulturetan birtxertatzen da eta horietara moldatzen da. Komunitate horiek, beraz, ez dira onuradunak bakarrik; aitzitik, lankidetzaren ekimenaren eta metodologiaren sortzaileak dira. Lankidetzaren ikuspegi horretatik, lurralde dimentsioan dagoen egunerokoa, hau da, lurralde bakoitzeko gizarte dinamikak, funtsezko faktorea dira lankidetzaren ekimenaren definizioan: “The concept and space of the everyday illustrates how the liberal and the local may avoid such anxieties and engage in a mutual remediation of political space and both overcome and maintain boundaries between them, where necessary” (Richmond, 2011, 124).

### **3. Nazioarteko lankidetza eragileentzako gomendioak multikulturaltasun testuinguruko bakegintza prozesuen markoan: kulturartekotasunaren aldeko apustua**

Ondorio moduan eta honako kapitulu hau amaitzeko, azterketa honetan egindako gomendioak laburbildu nahi ditugu. Gomendio horiek elementu berrien bitartez aberastuak eta osatuak izateko aukera dute.

1. Gizarte batek dituen oinarri kulturek, batez ere horiek balio liberalaren neurriaren bitartez bakarrik neurtzen direnean, ez dute gizarte horrek nazioarteko lankidetza “merezi” duen edo ez erabaki behar; are gutxiago bakegintzan lagundu nahi duen lankidetzaz ari bagara. Beraz, “autonomia [edo gainontzeko printzipio liberalak] funtsezko balioztat hartzen ez duten baina beren kideen ongizatea sustatzen duten kultura horiek ere babestu behar ditugu” (Rodríguez, 2011: 370). Komunitate baten barne balioen eraldaketaren aurrean, lankidetzak komunitate eta kultura hausnarketa prozesu autonomoak eta gaitasunak indartzeko prozesuak sustatu beharko lituzke.
2. Lankidetzak eta horrek aurreikusten dituen bakegintza jarduerak, bada, eragile hartzaileen eta horien zeharkako eragina izan ditzaketen beste eragile batzuen balio kulturalen kontra jokatzeko ekidin behar dute etengabe. Izan ere, oinarri horiek lankidetzak berak -mendebaldeko liberalismoaren berezko dinamiketan murgildurik-kulturak baloratzeko erabiltzen dituen parametroak ezartzen dituzte. Neurri horretan, gizarte jakin batean funtsezkoak izan daitezkeen esanahien eta hurbiltasunen ondarea ulertzea baloratu beharra dago. Ondorioz, lankidetzak bere ekintzek balio horien kontra jokatzeko saihestuko du eta ondorioz gatazkak kudeatzeko agertoki baketsuak sortzeko lanean porrot baino arrakasta gehiago izango ditu.
3. Inpaktu negatiboak minimizatzeak eta inpaktu positiboak maximizatzeak nazioarteko lankidetzaren edozein ekintzaren helburu nagusia izan behar du. Hori bereziki garrantzitsua da multikulturalismoa faktore erabakigarria den testuinguruetan nazioarteko lankidetzak esku hartzen duen kasuetan.
4. Lankidetza eragileek, beren egitasmoetan, komunitate etniko eta kulturalen artean etengabe ematen den interakzioa kontuan hartu behar dute; ez lankidetzatik exogenoa den elementu bezala, hau da, lankidetza eragileengandik independenteak eta kulturalki desberdinak diren eragileen artean ematen den zerbait bezala; baizik eta lankidetza eragile horiek harreman dinamiketan eta moduetan sartzen dituen egoera bezala.

5. Kritikoa eta gatazkarekiko sentikorra den nazioarteko lankidetzaren jardueraren batek, aldi berean, honako hau bermatu behar du: beren estrategiek eta ekintzek aurreko puntuan aipatu dugun kultura arteko interakzioaren kalitatea hobetzen laguntzea. Izan ere, horren menpe egongo da lankidetzaren proiektuetan bertan proposatutako helburuak betetzea eta horiek denboran irautea.
6. Horri jarraituz, lankidetzaren eragileek esku hartzen duten testuinguruaren inguruko ikuspegia ahalik eta gehien zabaltzea komeni da. Horrek honen inguruan kontzientzia hartzea eskatzen du: gizarte taldeen artean ematen diren interakzioak kulturarteko marko batean ematen dira eta, hala, botere borroka testuinguru zabalago batean txertatzen dira. Testuinguru hori, seguru asko, kolonialtasunaren berezko dinamiketan kokatzen diren berdintasun parametro eskasetan oinarrituko da. Zentzu horretan, gaur egun, egoera hori hobetzen, hau da, hori dekolonizatzen laguntzea lankidetzaren inperatibo etikoa da.
7. Nazioarteko lankidetzaren eragileek honako hau ulertu behar dute: kulturarteko klabean ematen diren interakzioak botere borroka eta tirabira testuinguru zabal batean ematen dira. Horren ondorioz, agian ez dira elkarrizketarako behar diren berdintasun baldintza nahikoak emango eta kolonialtasunaren boterearen parametroak nagusi izango dira. Beraz, nazioarteko lankidetzaren ekintzek patroia kolonial horiei erreparatu behar diete lekuan bertan. Horretarako, honako hauek identifikatu behar dituzte: interakzio horiek eta boterea lortzeko borroka gidatzen dituzten arauak eta ezaugarriak, horiek eragile desberdinen arteko harremanean dituzten eraginak eta, zergatik ez, lankidetzaren prozesuan bertan dituzten ondorioak. Hori baino garrantzitsuagoa izango da agian, lankidetzaren prozesuak egoera orekatzen lagundu behar duela, dekolonialtasunaren ikuspegiaren arabera. Izan ere, bakegintzari buruz aritzeak -batez ere bake kritikoz ari bagara- indarkeria estrukturala identifikatzea eta eraldatzen saiatzea eskatzen du, jakina denez.
8. Bakegintzaren bidean, nazioarteko lankidetzaren ekarpenek honako hau kontuan hartu behar dute: indarkeria estrukturala eraldatzea, bada, gizarte ordenaren funtsezko alderdiak eta, zentzu horretan, "beste bereizi" horrek prozesu horretan egin ditzakeen ekarpenei ematen zaien balioa berrebaluatzeko edo birformulatzeko prozesuetan hainbat gizarte taldek parte hartzeko baldintza berriak sor ditzake. Hala, akordio egonkorak eta iraunkorak bermatzen dituzten "tarteetan sartzeko sistema simetrikoak" (Walsh, 2002: 6) sortzen laguntzea, beraz, nazioarteko lankidetzak bake prozesuetan duen eginkizun bat izan daiteke.
9. Gizarte ordenaren izaera gertagarria eta horrek lankidetzaren estrategiek proposatutako helburuak lortzeko izan ditzakeen eragina onartzea ezinbestekoa da nazioarteko lankidetzaren helburuak betetzeko. Era berean, hori funtsezkoa da proiektuen testuinguruan dauden gizarte talde desberdinek beren desberdintasunak eta tentsioak lantzeko, tramitatzeko eta kudeatzeko duten moduetan funtsezko aldaketak sortzeko; aldaketa horiek benetako bakegintza prozesuak sor ditzaten.

10. Lankidetzak eta bakegintza lanak ez dira gehiago idealizatuak izan behar, horiek erabat neutralak diren edo izan nahi duten prozesuak direlako ustea baitago. Horrela, lankidetzak eta bakegintza lanek gizarte gatazken eta tentsioen benetako kausei aurre egiten hasi beharko dute. Izan ere, kausa horiek kontuan ez hartzeak baliabideak, denbora eta ahaleginak galtzea ekar dezake, horiek eman zitzaketen epe luzeko emaitza eraginkorrak alde batera utziz. Hala ere, honako hau azpimarratu beharra dago: neutraltasun “osoa” izateko asmoari uko egiteak ez du esan nahi, inondik inora, gatazkaren alderdi baten aldeko jarrera hartu behar denik; aitzitik, lankidetzak ekintzek gizarte eragile desberdinen arteko harremanak gutxieneko berdintasun batean oinarritzen lagundu behar dute edo, gutxienez, ekintza horiek berdintasunezko printzipio horren kontra ez joatea sustatu behar dute.
11. Lankidetzak, kulturartekotasunaren markoan, bestelako mundu-ikuskerak aintzat hartzeko eta baloratzeko joera izan behar du; esentzialismoak handitzen, eragile etnikoen arteko lehiakortasuna sustatzen edo gizabanakoen arteko harreman-logika asimetrikoak erreproduzitzen dituen ikuspegi inozoa hartu gabe.
12. Lankidetzak eragileek gaur egungo gizarteetan kulturartekotasunak duen formaren aurrean jarrera kritikoa hartzeak, bada, sistema multikulturalisten kategoria desberdinak betetzen duten funtzioa aztertzea eskatzen du. Izan ere, “indigena”, “afrikar jatorriko” eta “nekazari” hitzek, besteak beste, adierazpen eta balorazio lekuak ezkututzen dituzte eta kultura-asimilazio tresna bilakatzen dira.
13. Halaber, lankidetzak eragileek beren lankidetzak estrategiek helburu duten Estatuaren aurrean jarrera kritikoa hartzea eta horiek kontuan hartzea garrantzitsua da; izan ere, estatuak hartzen dituzten erabakiek ondorioak izango dituzte estrategia horien gainean; horiek erraztuz edo eragotziz. Gainera, erabaki horiek boterea dekolonizatzekeko prozesu nagusiak ere oztoka ditzakete.
14. Tokiko agentzia aintzat hartzea eta horri balioa ematea bakegintza laguntzeko modu eraginkor bat da. Izan ere, horrek aurrerapauso handiak ekar ditzake legitimitatearen eremuan. Horietan oinarrituz, bakegintza prozesu egonkor eta iraunkor batek eskatzen dituen funtsezko aldaketan (dekolonizatzaileen) alde lan egin daiteke.
15. Edozein gizarte ordenan, eraldaketa estrukturalak eta batez ere kulturartekotasunaren aldeko horiek denbora behar dute eta epe luzeko ikuspegi bat hartu behar dute, non gizabanakoek eremu publikoan eragiteko gaitasunak lortzen dituzten.

## Bibliografía

- Arboleda, S. (2011), *Destierro afrocolombiano: la interculturalidad imposibilitada*. Universidad de Barcelona, Bartzelona.
- Bartolomé, M. A. (2006), “Los laberintos de la identidad”, in *Procesos Interculturales. Antropología política del pluralismo cultural en América Latina*, Mexico: Siglo XXI.
- Bonilla, D. (2006), *La Constitución multicultural*, Siglo del Hombre Editores, Bogotá.
- Canadell, A. (2001), “El lugar de la interculturalidad” in *Cuadernos de Pedagogía* 303. zkia. (52-56. orr.), Bartzelona, 2001eko ekaina.
- Chapela, L. M., “Interculturalidad”, in *Sinética* 15. zkia. 1999, 12. eta 13. orr.
- Duarte, C. (agrtz.) (2015), *Desencuentros territoriales: la emergencia de los conflictos interétnicos e interculturales en el departamento del Cauca*, Instituto Colombiano de Antropología e Historia, Bogotá.
- Gros, C. (2000), “De la nación mestiza a la nación plural: el nuevo discurso de las identidades en el contexto de la globalización”, 351-363.
- Moreno, R. eta Palacio, Y. C. (2016), *La visión de desarrollo y su incidencia en la implementación del Acuerdo uno (1) de La Habana sobre Desarrollo Rural Integral, desde el enfoque de paz territorial y los mecanismos construidos por las comunidades negras en el Medio Atrato*, Trabajo de tesis para optar por el título de Magister en Conflicto y Paz, Universidad de Medellín – En convenio con la Fundación Universitaria Claretiana, Medellín.
- Panikar, R. (2006), *Paz e Interculturalidad*, Herder Editorial, Bartzelona.
- Rappaport, J. (2008), *Utopías Interculturales*, Editorial Universidad del Rosario, Bogotá.
- Richmond, O. (2011), *A Post-Liberal Peace*. New York: Routledge.
- Richmond, O. eta Mitchell, A. (2012), *Hybrid Forms of Peace: From Everyday Agency to Post-Liberalism*. Londres: Palgrave Macmillan.
- Rodríguez, T. E. (2011), “La construcción de una democracia intercultural. Más allá de la tolerancia y la autonomía”, in *Los Movimientos sociales en la construcción del Estado y de la nación intercultural*, Huygens editorial, Bartzelona.
- Valdillo Pinto, A. (2006), “La interculturalidad, un desafío para una sociedad democrática”, in *La Interculturalidad bajo la mirada boliviana, Revista Lazos* 2. zkia.
- Walsh, C. (2002), “(De) Construir la interculturalidad. Consideraciones críticas desde la política, la colonialidad y los movimientos indígenas y negros en el Ecuador”, in Fuller, Norma (argtz.), *Interculturalidad y Política*, Red de Apoyo a las Ciencias Sociales, Lima.